



Instalaziorako eskuliburua Izenpe ziurtagiri digitala

Windows 8

Izenpe s.a. 2013

Obra hau Creative Commons-en 3.0 lizentziaren mendekoa da (aitortu, ez komertziala, partekatu baimen beraren arabera). Kopia, bana eta jendaurrean komunika daiteke, betiere egilea zehazten bada eta helburu komertzialekin erabiltzen ez bada.

Lizentzia osoa hemen kontsulta daiteke: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/3.0/deed.es>. Izenpe, s.a. ez da izango



Edukiaren aurkibidea

Sarrera.....	4
Agiriaren egitura eta irismena	4
Onartutako hardwarea eta aplikazioak	5
Onartutako irakurgailuetako batzuk	5
Berez onartutako txartel adimendunak	5
Kanpoko PKCS#11 liburutegiak erabiliz eutsitako txartel adimendunak:	6
Onartutako aplikazioak.....	6
Instalatzeko software-eskakizunak	6
Irakurgailuak konfiguratzea.....	6
Izenperen Middleware-a deskargatzea eta instalatzea	7
Izenperako ziurtagiriak deskargatzea eta instalatzea	10
1. modua – Modu automatikoa	11
2. modua – Eskuzko modua.....	14
Oracle-ren JAVA JRE deskargatzea eta instalatzea	17
Aplikazioak konfiguratzea.....	20
Web-nabigatzaileak	20
Firefox	20
Ziurtagirietarako modulua instalatzea	20
Google Chrome	22
Aplikazioen erabileren adibidea	23
Webguneetan identifikatzea.....	23
Firefox	23
Beharrezko aldaketa Firefox-en, web batzuetarako sarbideak funtzionatzeko	26
Google Chrome	28
Java-ren plugin-a egiaztatzea.....	28
Sinadura-proba	28
Dokumentu ofimatikoak sinatzea	29
Microsoft Office	29
Beste aplikazio osagarri batzuk	31
Izenperen txartelaren kudeatzailea	31
PINa aldatzea.....	32
PINa desblokeatzea.....	32
PUKa aldatzea	33
Ikusi... ..	33
Bateraezintasun ezagunak (garrantzitsua)	34



e-NAN	34
Izenperen txartel zaharrak	34
Sistema mugikorretarako eranskina.....	35
Windows Phone	35
Agiri honi buruz	36



Sarrera

Euskal Autonomia Erkidegoan software librea eta open source erabiltzen dutenei beren ziurtagiriak erabiltzen laguntzeko eta hori errazteko ahaleaginean, Izenpek hainbat eskuliburu prestatu ditu Izenperen ziurtagiri digitalak GNU/Linux sistema eragilean instalatzeko eta konfiguratzeko beharrezkoak diren urratsak zehazteko helburuarekin.

Kasu honetan Ubuntu 13.04 LTS banaketan Izenperen ziurtagiri digitalak erabili ahal izateko jarraitu beharreko prozesua deskribatuko dugu, euskal administrazio publikoak eskainitako zerbitzuetarako sarbidea ematen duten aplikaziorik garrantzitsuenekin.

Agiriaren egitura eta irismena

Agiriak 5 atal sekuentzial ditu, eta horietan zehatz-mehatz adierazi da Izenperen ziurtagiri digitalak Windows sisteman instalatzeko, konfiguratzeko eta erabiltzeko prozesu osoa:

- Hardwareko (irakurgailuak) eta softwareko (kanpo-aplikazioak) eskakizunak.
- Izenperen Middleware-a deskargatzea eta instalatzea.
- Izenperako ziurtagiriak deskargatzea eta instalatzea.
- Onartzen dituen aplikazioak konfiguratzea eta erabiltzeko adibideak.
- Errore ezagunak, gomendioak eta soluzioak.

Atal horietako bakoitzean prozesu osoa gauzatzeko beharrezko zereginak azalduko dira.

Dokumentu honen helburua da Windows 8 eta ondorengoak instalatzeko eskuliburu gisa balio izatea.



Onartutako hardwarea eta aplikazioak

Onartutako irakurgailuetako batzuk

Agiri honetan ezin diegu tartea egin merkatuan diren hardwareko gailu guztiei. Hori dela eta, Izenpek euskarria ofizialki txartel kriptografikoen honako USB irakurgailuei ematea erabaki da:

- USB irakurgailu txikia
- Cherry Keyboard
- BAY irakurgailu txikia
- PCMCIA-92 irakurgailu txikia

Horiek guztiak Izenperen web-orriko dendaren bidez (<http://www.izenpedenda.com/>) edo baimendutako beste edozein hornitzailearen bidez lor daitezke. Gainera, beste irakurgailu batzuek ere funtzionatu ahal izango dute, eskura ditugun driver-en arabera.

Ohar garrantzitsua: Txartel-irakurgailuak PC/SCrekin bateragarria izan behar du.

Berez onartutako txartel adimendunak

Izenperen Mac-erako Universal Middlewarea (aurrerantzean UM) PKCS#11 v2.11 espezifikazioarekin bateragarri den API bat erakusten duen liburutegi-modulua.

Modulu horrek programazio-interfazeek erabiltzen duten softwareari eskaintzen dio token kriptografiko gisa eutsitako txartel adimendunak erabiltzeko aukera.

Zerrenda honetan Izenperen moduluarekin bateragarriak diren txartelak daude.

- Gemalto Classic TPC:
 - o FileSystem full compliant PKCS#11, 2048 bit-eko objektuekin
 - o Legezko baliogarritasuna duen Sinadura elektronikoko FileSystem 2048 bit-eko objektuekin.
- Giesecke&Devrient (StarCOS 2.3)
 - o FileSystem full compliant PKCS#11, 1024 bit-eko objektuekin
- Incard Incrypto34 V2 filesystem-ekin: CNS + Sinadura elektronikoa + FullP11:
 - o CNIP Aren (v.1.1.3) (FS CNS) CNS zehaztapenen arabera FileSystem CNS
 - o Lege-balioa duen Sinadura elektronikoko FileSystem (FS DS-v1.0)
 - o FileSystem full compliant PKCS#11 (FS FullP11)
- Incard Touch&Sign2048:
 - o Incrypto34v2 txartelean eutsitako filesystem guztiak gehi:
 - FileSystem full compliant PKCS#11 (FS FullP11), 2048 bit-eko objektuekin
 - Sinadura elektronikoko onartutako FileSystem (FS DS-v2.0), 2048 bit-eko hiru gako-parerekin edo 1024bit-eko hiru gako-parerekin gehi 2048 bit-eko hiru gako-parerekin.



Kanpoko PKCS#11 liburutegiak erabiliz eutsitako txartel adimendunak:

- | | |
|--|--|
| • Incard CryptoSmartCard16 (SetecOS) | • Siemens (Siemens SISS – HPC) |
| • Incard CryptoSmartCardE4H (Starcos) | • Siemens (Siemens CardOS M4.01a) |
| • Incard M4.01a FS1111 (Siemens CardOS/M4) | • Athena (ASECard Crypto) |
| • Gemplus (GemGATE 32K) | • Ghirlanda (M4cvToken) |
| • Gemplus (GemGATE CardOS M4) | • Gemplus (SIM TIM) |
| • Siemens (Siemens CardOS M4.01) | • Oberthur (Cosmo 64 RSA dual interface) |
| • Siemens (Siemens CardOS M4) | • Oberthur (Oberthur Cosmo64). |
| • Siemens (Siemens CIE) | |

Onartutako aplikazioak

Izenpek eskainitako zerbitzuetarako sarbidea izateko, ezinbestekoa da Izenperen ziurtagiriak erabiltzen dituzten tresnak eta aplikazioak izatea eskura.

Ziurtagiri horiek erabiltzen dituzten aplikaziorik ohikoenak hiru kategoriatan multzokatu ditugu eta horiek instalatzeko eta Izenperen ziurtagiriekin konfiguratzekeo prozesua dokumentatzen saiatu gara.

Honakoak dira agiri honetan azalduko ditugun aplikazioak:

- Web-nabigatzaileak
 - Firefox 24.0
 - Google Chrome / Chromium 31.0.1650.57
- Ofimatikako tresnak
 - LibreOffice 3.5.4.7

Instalatzeko software-eskakizunak

Irakurgailuak konfiguratzea

Windows-en azken bertsioetan (adibidez, 7 eta 8), gure txartel-irakurgailua adimendunen driver-ak edo kontrolagailuak bere kasa instalatuko dira.



Bertsio zertxobait zaharragoetarako (esaterako, Windows XP), gure irakurgailurako berariazko driver-ak bilatu beharko ditugu haren fabrikatzailearen orrian.


Izenperen Middleware-a deskargatzea eta instalatzea

Middleware-a deskargatzeko, Izenperen weberra joango gara eta, *Software* atalean, behar dugun fitxategia aurkituko dugu deskargatzeko.


www.izenpe.com



Gure kasuan, Windows hautatu eta "Izenperen softwarea" atalean klik egingo dugu.



Fitxategia gorde eta, ondoren, exekutatu dugu, deskargatutako fitxategiaren gainean eskuineko botoiarekin klik eginda eta "Administratzaile gisa exekutatu" aukera hautatuta.



Oharra: Instalazioaren ondoren sistema berrabiarazi behar denez, gorde dena aldeztu aurretik...



Instalazioa osatzeko morroiak adierazten dizkigun urratsei jarraitu. Sistema berrabiarazi arte ez da osatuko.





Izenperako ziurtagiriak deskargatzea eta instalatzea

Izenpek ziurtapen-autoritateen eta mendekoen hierarkia bat prestatu du Internet bidez eskaintzen diren zerbitzuetara sartzekoan sortzen diren premia desberdinei erantzun ahal izateko eta, hori dela eta, erabiltzaileak hainbat profilekin egiaztatzen ditu, kasuan kasu.





1. modua – Modu automatikoa

Izenpek plataforma bakoitzerako instalatzaile berezi batzuk garatu ditu, eta horien helburua da ziurtagiriak deskargatzea eta instalatzea hain konplexua ez izatea, orain arte indarrean ziren softwarearen ezaugarriengatik gertatzen zen bezala.


Kasu honetan, behar dugun instalatzailea **.deb** pakete bat da, bateragarria baita mota horretako paketeak erabiltzen dituzten banaketetarako (adibidez, Ubuntu, Debian, Linux Mint...).

Ziurtagiriak deskargatzeko, Izenperen weberra joango gara eta, *Software* atalean, horiek deskargatzeko fitxategia aurkituko dugu.

www.izenpe.com



Windows-erako *Izenpe* ziurtagiria hautatu eta *Gorde fitxategia* klikatuko dugu.




Oharra: Lehenespenez deskargen karpetan gordeko da zure direktorio pertsonalaren barruan.

Deskarga burutu ondoren, deskargatutako fitxategia exekutatu dugu, aurretik middleware-arekin egin dugun bezalaxe.




Morroiari jarraituko diogu eta lanerako nahi ditugun nabigatzaileak hautatuko ditugu.



Nahi izanez gero, instalazioa ondo egin den egiazta daiteke, zure nabigatzailean instalatutako ziurtagiriak kontsultatuz.

Bide-izena: Firefox → Aukerak → Aukerak → Aurreratua → Ziurtagiriak → Ikus ziurtagiriak → Autoritateak. Bertan, Izenpe bilatuta, zortzi sarrera izan beharko genituzke.



Oharra: Gure ekipoa Chrome ere instalatuta badaukagu, eta konfiguratu nahi badugu, hori hauta dezakegu eta ziurtagiriak gure datu-basera inportatuko dira.



2. modua – Eskuzko modua

Edozein arrazoiengatik aurreko urratsa erabilgarri ez badago, ziurtagiri bakoitza eskuz deskarga eta instala dezakegu. Prozesu nahiko neketsua.

Ziurtagiri horiek web-orri honetan eskura daitezke: www.izenpe.com → Ziurtagiriak deskargatzea.


Ziurtagirietara joateko zuzeneko lotura→
https://servicios.izenpe.com/jsp/descarga_ca/descarga.htm



HATZ-MARKA DIGITALAK 2007ko IZENPEn CA			
SHA1		SHA2	
2007ko IZENPEn CA [30 77 9E 93 15 02 2E 9 4 85 6A 3F F8 BC F8 15 B0 82 F9 AE FD]		2007ko IZENPEn CA [2F 78 3D 25 52 18 A7 4A 65 39 71 B5 2C A2 9C 45 15 6F E9 19]	
Herritar eta Erakundeen CA (4) [9F DC E9 42 9B 3D 7E 59 49 9D C3 F8 3C 93 66 65 22 69 A7 59]		Herritar eta Erakundeen CA (4) [08 D8 D6 2A 1A 15 36 C5 3A 0F 9A 18 35 BF 82 C9 F09 6 83 23]	
Herritar eta Erakundeen CA (3) [06 FB AC 35 AE 18 FC BF 22 29 78 8D D1 2D AC 89 8E 74 52 AE]		Herritar eta Erakundeen CA (3) [87 56 60 A3 5C B1 03 D7 E0 BB 00 44 24 F1 6D BF BF 21 E0 B4]	
EAEko Herri Administrazioaren (2) [7F 58 BB 8F 87 11 C0 49 61 28 CF 71 63 4B 77 95 0A DD D3 2C]		EAEko Herri Administrazioaren (2) [F7 9C DA 11 E7 91 74 19 A0 41 8D B8 4B A7 43 C5 31 3A D7 F0]	
EAEko HAetako Langileen CA (2) [E5 C8 62 ED DC F1 14 C8 26 61 98 4A D6 48 AD F2 3F 51 10 FC]		EAEko HAetako Langileen CA (2) [93 A1 44 6B 61 99 4B 5B 0E 99 D0 5B 14 CD BB 32 2E 6C 17 64]	
EVko SSL CA [67 16 29 9C C4 C0 CA 25 52 EE 88 01 9A FC EE 49 B2 A1 63 34]		EVko SSL CA [6C 48 4D 0F 4D B2 95 EC 67 EB B3 E0 5E 3D C2 14 49 2A 9A B8]	
Eusko Jaurilaritzako Langileen CA [4A 17 ED D4 9E D4 CC 39 24 3A BE 74 B8 92 DF AA 00 68 6A 80]		Eusko Jaurilaritzako Langileen CA [25 E9 D1 6D 4A 60 73 40 8C BE 24 8E 52 9C 23 9E 32 92]	

HUELLAS DIGITALES CA RAÍZ 2003	
SHA1	
2003ko IZENPEn CA [4A 3F 8D 6B DC 0E 1E CF CD 72 E3 77 DE F2 D7 FF 92 C1 9B C7]	

Ziurtagiriak deskargatzeko, klik egin behar da lauki urdin batean gezi zuri bat marraztuta duten irudien gainean. Honelako leihoa ageriko zaigu. Bertan, ekintza guztiak hautatu behar ditugu.



Izenpek definitutako ziurtapen-autoritateen egituraren arabera, txartel bakoitza erroko autoritate batekin eta mendeko batekin bakarrik izango da baliozkoa. Horrek esan nahi du ez dela behar-beharrezkoa ziurtapen-autoritate guztien ziurtagiri guztiak inportatzea, dena delako aplikazioak ez dituelako horiek gure txartelarekin erabiliko. Baina autoritateen hierarkiaren funtzionamendua ondo ezagutzen ez badugu, denak instalatzea gomendatzen dugu.



Funtsezkoa da ziurtapen-autoritateen erroko ziurtagiriak Firefox nabigatzailera inportatzea kautotzeko eta sinatzeko prozesuak egin ahal izateko webguneetan. Nabigatzaileak ziurtagiri horiek ez baditu, zerbitzariak ezetsi egingo du sarbidea.


Ziurtagiri guztiak ondo inportatu ditugula egiaztatzeko, lehen jarraitutako urrats berak eman ahal izango ditugu.



Oracle-ren JAVA JRE deskargatzea eta instalatzea

Webetarako konexioa kudeatzen duen applet-ak eta dokumentuen online sinadurak behar bezala funtzionatzeko (Idazki-ren applet-a), beharrezkoa da ekipoa **Oracle-ren Java JRE**ren azken bertsioa instalatuta izatea.

Instalatuta ez badago, baliteke honelako zerbait topatzea webetan sartzean (gainera, instalazio automatikoak huts egiten du edo ia gehienetan desaktibatuta dago):



Azken bertsioa dugula egiaztatzeko: <http://www.java.com/es/download/installed.jsp>

Hala ez **Verificar la versión de Java** balitz, azken bertsioa

Asegúrese de que tiene instalada la versión de Java recomendada para su sistema operativo.



deskargatuko dugu.



Descargar Java para Windows

Recomendado Version 7 Update 45 (Tamaño de archivo: 893 KB)



La descarga e instalación de Java funcionará únicamente en el modo de escritorio de Windows 8. Consulte las [preguntas más frecuentes sobre Java en Windows 8](#) para obtener información más detallada.

**Aceptar e iniciar descarga
gratuita**

Al descargar Java, confirma que ha leído y aceptado los términos
del [acuerdo de licencia de usuario final](#)

Ez da beharrezkoa zehaztea gure sistema 64 b-koa edo 32 b-koa den zehaztea. Webak hori automatikoki egiten du eta azken bertsioa deskargatzen du, gure arkitekturaren arabera.

- Deskarga burutzen denean, Firefox itxiko dugu.
- Aurretiaz deskargatutako fitxategia exekutatu dugu (itxi nabigatzaile guztiak).

Instalazioa behar bezala gauzatu dela egiaztatzeko, nabigatzaile bat irekiko dugu eta, berriz ere, Java-ren orri ofizialera joango gara: <http://www.java.com/es/download/installed.jsp>



Verificar la versión de Java


Asegúrese de que tiene instalada la versión de Java recomendada para su sistema operativo. Puede que aparezca un mensaje de seguridad después de hacer clic en el siguiente botón. Haga clic en **Ejecutar** para permitir que el proceso de verificación continúe.

Verificar la versión de Java



Si ha completado recientemente la instalación del software de Java, **puede que tenga que reiniciar su explorador** (cierre todas las ventanas del explorador y vuelva a abrirlas) antes de comprobar su instalación.

Ageriko zaigun leihoan, Java exekuta dadin onartzeak dakarren puntu ahul bati buruz ohartarazten da. Onartu behar dugu.





Instalazioa behar bezala eginez gero, honako honen antzeko pantaila bat ikusi beharko genuke:

Versión de Java verificada



Enhorabuena.

Tiene instalada la versión de Java recomendada (Version 7 Update 45).

Aplikazioak konfiguratzea


Web-nabigatzaileak

Firefox

Egun gehien erabiltzen den nabigatzaileetakoa da Firefox.

Ziurtagirietarako modulua instalatzea

Firefox menuan → *Aukerak* barruan *Aurreratua* klikatuko dugu, eta ondoren *Ziurtagiriak* fitxa, irudian ikus dezakegun bezala. Azkenik, *Segurtasun-gailuak* botoia klikatuko dugu berriz.




Gailuen administratzailea Firefox-en segurtasun-moduluak kudeatzea ahalbidetzen duen tresna da. Lehenetsitako konfigurazioan 2 segurtasun-modulu izaten ditu: bat, aurrez instalatuta



dauden lehenetsitako erroko ziurtagiriak kudeatzeko eta bestea, beharrezko liburutegiekin batera eranstean ditugun eta kanpokoak ez diren gainerako ziurtagiri guztietarako.


Behar dugun segurtasun-modulua eransteko, klik egingo dugu Kargatu botoiaren gainean.



Leiho bat irekiko da eta horrek emango digu aukera PKCS#11 modulu berria definitzeko:

- Moduluaren izena: Middleware-rako segurtasun-moduluari erreferentzia egiten dion izen generikoa. Edozein izen jarriko dugu. Adibidez: Izenpe
- Moduluaren fitxategia: Arakatu klikatu eta bit4ipki.dll fitxategia dagoen bideraino nabigatuko dugu
(Ekipoa->C:/->windows->System32->bit4ipki.dll)

Gero, Onartu klikatuko dugu eta modulu berria eranstean dela ikusiko dugu.



Oharra: Kasualitatez modulu berria erantsi baina hutsik agertzen bada, agian ekipoa berrabiarazi behar duzu. Ziurta ezazu irakurgailua eta txartela PCra ondo konektatuta daudela.



Google Chrome

Egun, Google Chrome nabigatzaileak #PKCS11 ziurtagirien sinadura onartzen du, aparteko konfiguraziorik egin behar izan gabe.

Besterik gabe, nabigatzailea instalatuta eduki behar dugu Oracle Java eta Izenperen ziurtagiriak instalatu aurretik. Horietan, instalatzean, Google Chrome laukia markatu behar dugu.




Aplikazioen erabileren adibidea

Webguneetan identifikatzea


Firefox

Ziurtagirien kokapena konfiguratu ondoren (dagokion atalean azaldutako eran), sinadura-proba bat egingo dugu, instalazio osoa zuzena dena eta prozesua arrakastaz burutu dela egiaztatzeko.

Firefox → *Osagarriak* → *Plugin-ak* irekiko dugu, Java-ren plugin-a kargatuta dagoen berrikusiko dugu eta web-orri honetan bertsioa berriz ere egiaztatuko dugu:



Egiaztatu Java bertsioa → <http://www.java.com/es/download/installed.jsp>






Laster-leihoak baimendu egingo ditugu

Sartzen garen lehen aldian, laster-leihoak baimentzearekin edo ez baimentzearekin zerikusia duen oharra ager dakiguke.

Kasu honetan laster-leihoak baimenduko ditugu.

Gune horretarako beti onartzeko aukera ematen badigu, hautatu egingo dugu.

Agertuko zaigun segurtasun-oharpenean, oso garrantzitsua da **FIDATU BETI** laukia **AKTIBATZEA** eta, ondoren, **EXEKUTATU** sakatzea.



Ondoren kargatuko zaigun orrian, sinadura-proba egiteko datu batzuk jarri beharko ditugu. Datu horiek ez dute zertan benetakoak izan, irudian ikusten denez.


SINADURA-PROBA

Formulario honen helburua da irakurgailuak eta Izenperen sinaduraren softwareak behar bezala funtzionatzen duten eta ziurtagiria baliozkoa den probatzea. Sartutako datuak gezurrezkoak izan daitezke eta ez dira erregistratuko.

Izena	Abizenak
Erakundea	




Sinatzeko aukera sakatu, sinatu nahi duguneko gure ziurtagiria hautatu eta onartu egingo dugu.



Ondoren, gure pin pertsonala eskatuko digu eta sartu egingo dugu.

Gure ziurtagiria aplikazioan sartzeko baliozkoa bada eta ezeztatuta ez badago, aplikazioak sarbidea emango digu, bertan gaudenean ditugun berme berberekin.





Sinadura prozesatuko da eta, osatzen denean, dena zuzen joan dela baieztatzeko mezu bat ageriko zaigu.

RESULTADO DE LA PRUEBA DE FIRMA



LA PRUEBA DE FIRMA SE HA REALIZADO CORRECTAMENTE

Oharra:
Egoki


irizten ditugun kudeaketa-lanak egin ostean, oso garrantzitsua da webguneko saioa eta nabigatzaile ixtea, beste pertsona batzuk gure datuak erabiliz Interneten sartzea saihesteko.

Beharrezko aldaketa Firefox-en, web batzuetarako sarbideak funtzionatzeko

Firefox-en bertsioen jauziarekin eta nabigatzailearen bertsio bakoitzean egindako aldaketekin batera, web-orri batzuetan zerbitzu jakin batzuetarako sarbidea eta horien exekuzioa “murriztu” da, eta horrek zenbait bateraezintasun sorrarazi ditu.

Adibidez, **Bizkaia.net** gunean sartzeko, Firefox-en konfigurazioaren balio bat aldatu beharra daukagu. Honela egingo dugu:

Firefox ireki eta url-eremuan hau idatziko dugu: *about:config*



¡Zona hostil para manazas!

Cambiar estas preferencias avanzadas puede ser perjudicial para la estabilidad, seguridad y rendimiento de esta aplicación. Sólo debería continuar si está seguro de lo que está haciendo.

☒ Mostrar esta advertencia la próxima vez

¡Tendré cuidado, lo prometo!

Onartu egingo dugu, “Kontuz ibiliko naiz, hitzematzen dut!” gainean klik eginda, eta bilatzailean *security.ssl/* idatziko dugu.



Aurkitzen digun lehen aukeraren gainean klik bikoitza egingo dugu eta ikusiko dugu, letra lodiaz nabarmentzeaz gain, balioa **TRUE**era aldatzen duela.

Nombre de la preferencia	Estado	Tipo	Valor
security.ssl.allow_unrestricted_renego_everywhere__temporarily_available_pref	establecido por el ...	lógico	true
security.ssl.enable_false_start	predeterminado	lógico	false
security.ssl.renego_unrestricted_hosts	predeterminado	cadena	
security.ssl.require_safe_negotiation	predeterminado	lógico	false

security.ssl.allow_unrestricted_renego_everywhere__temporarily_available_pref

Fitxa itxi ondoren, gure txartelaz Bizkaia.net gunera behar bezala sartu ahal izango gara.



Google Chrome

Google Chromerako urrats guztiak eman ondoren (dagozkion ataletan azaldutako eran), sinadura-proba bat egingo dugu, instalazio osoa zuzena dena eta prozesua arrakastaz burutu dela egiaztatzeko.

Java-ren plugin-a egiaztatzea

Java egoki kargatuta dagoela eta funtzionatzen duela egiaztatzeko, nabigatzailean beste fitxa bat zabaldu eta url gisa chrome://plugins idatziko dugu.

Java(TM) (2 files) - Versión: 10.45.2.18
NPRuntime Script Plug-in Library for Java(TM) Deploy

[Inhabilitar](#) ☐ Permitir siempre

Instalatutako plugin-en zerrenda ikusiko dugu. Horien artean, Java-k agertu beharko du.

Java egiaztatu ondoren, sinadura-proba egin dezakegu Izenperen webean.

Sinadura-proba

Prozesua aurreko atalean Firefox nabigatzaileko ikusitako berbera da.

Dena zuzen badago, azken emaitza honako hau izango da:

SINADURA-PROBAren EMAITZA



SINADURA-PROBA BEHAR BEZALA EGIN DA

Zure txartelean dagoen ziurtagiriaren datuak:

Sinatzailearen izena: ALBERTO DOMINGUEZ CENTENO (NAN: 71030116K)

Ziurtagiria jaulki duen entitatea: CN=Herritar eta Erakundeen CA - CA de Ciudadanos y Entidades (4), OU=NZZ Ziurtagiri publikoa - Certificado publico SCI, O=IZENPE S.A., C=ES

Ziurtagiri mota: Entitateko

Balioetaren epea: 14/06/2012 - 14/06/2016



Dokumentu ofimatikoak sinatzea

Microsoft Office


Ziurtagirien kokalekua dagokion atalean azaldutakoari jarraiki konfiguratu ostean, dokumentu ofimatiko bat sinatzeko prozesua egingo dugu.

OpenOffice suiteak agiri mota hauek sinatzeko aukera ematen du:

- Testu-dokumentuak
- Kalkulu-orriak
- Aurkezpenak
- Marrazkiak


Dokumentua sinatzeari ekiteko, *Sinadura digitalak* aukera hautatuko dugu *Fitxategia* menuan.

Oharra:




Dagoeneko gordeta dagoen dokumentua da sinatuko dena, alegia, aldatuko ez dena. Dokumentua sinatzen den unean dokumentua aldatuz gero, sinadura galdu egingo da, eta berriz sinatu beharko da.

Gorde ostean, Microsoft Office-ren sinadura digitalen kudeatzailea erakutsiko digu.



Egoki deritzogun konpromiso motaren aukera hautatu eta sinatzeko botoia sakatuko dugu.





Beste aplikazio osagarri batzuk

Izenperen txartelaren kudeatzailea

Middleware deskargatuta, aplikazio bat dago eta horrekin PINa aldatu eta PUK kodea sartuta desblokea dezakegu (PINa hiru aldiz oker sartu eta blokeatu egin bada), eta beste aukeraren bat ere badago.

Aplikazio hori gainerako aplikazioekin batera aurkitu ahal izango dugu. Gainera, idazmahaian zuzeneko sarbidea sortuko zaigu.





PINa aldatzea

Card Manager aplikazioaren barruan, PINa aldatzeko aukera sakatuko dugu.

Ondoren agertuko zaigun leihoak PINa aldatzeko aukera emango digu, betiere uneko PINa sartu ondoren.

Oharra: Mota horretako aldaketak egiteko, Izenperen aplikazio propioa erabiltzea gomendatzen dugu.

PINa desblokeatzea

Gure txartel kriptografikoarekin eragiketak egiten ditugunean, noiz edo noiz gerta dakiguke okerreko PINa sartzea. Gailu horiek errore mota horiekiko sentikorrak dira eta blokeoak sorraraz ditzakete.

Arazo horiek konpontzeko, PINa desblokeatzeko aukera dago.



PUKa aldatzea

Txartelaren gainean edozein motatako aldaketa egiteko beharrezkoa izango dugun segurtasun-zenbakia da PUKa.

Hura aldatzeko, PINa aldatzeko erabiliko genukeen jardunbide berari jarraituko diogu.

Ikusi...

Aukera honek txartelari dagokion ziurtagiriari buruzko informazioa erakutsiko digu. Gainera, baliagarria izango dugu ordenagailua bai txartela, bai txartel-irakurgailua ongi antzematen dituela egiaztatzeko.



Bateraezintasun ezagunak (garrantzitsua)

e-NAN

Jakina da arazoak izaten direla e-NANarekin funtzionatzeko beharrezko instalazioa eta Izenpe txarteletarako behar den instalazioa dauzkagunean.

Azken bertsioetan, biak ez luke arazorik egon behar biak batera egoteko.

Ohar garrantzitsua: Izenpek ez du e-NANaren euskarriarekin edo arazoekin lotutako erantzukizunik hartzen.

Izenperen txartel zaharrak

Izenperen txartelen fabrikatzaile-aldaketarekin, bi kasu nabarmen sortzen dira:

- Txartel zaharrak (2012 baino lehenagokoak) badabiltza Middleware berriarekin eta instalazio berriarekin.
- Txartel berriak ez dabilta instalazio zaharretan (OpenSC liburutegiekin egindakoetan). Middleware berria behar dute ondo ibiltzeko.



Sistema mugikorretarako eranskina

Windows Phone

Gaur egun, Windows Phone 7tik aurrerako bertsioetan, ez da beharrezkoa oinarritzko ziurtagiriak instalatzea errore-oharrik gabe nabigatu ahal izateko ziurtagiri horiek eskatzen dituzten orrietan. Sistemaren nabigatzailean jadanik sartuta daude.



Agiri honi buruz

Agiri hau Irontec Internet y Sistemas sobre GNU/Linux enpresak prestatu du.

Agiri hau prestatzeko garaian, aztertzeko eta abian jartzeko metodologia benetan zaindua garatu da, eta bide horretatik bermatu da agiria erabiltzaileen premietara egokitzea.

Irakurleak alderdiren bat okerra dela uste badu edo akatsen bat aurkitzen badu, e-mail bidez jakinaraz diezaguke cau-izenpe@izenpe.net helbidean, eta agiriaren hurrengo bertsioetan kontuan hartzen saiatuko gara.